



8'g. zenbakia

Toribio Larea

# TÍPA ZÓRIA

ATAL BATEKO ANTZERKIA

DONOSTIA'N  
MARTIN, MENA Y C. S. E. N. ETXERAN  
Funtzakaria, 14, beko gelan

1920

Ogiñetan J.

ATU  
23339



# TRIPA-ZORIA



## AGERLEAK

Beti-gose  
Dio  
Kiriko, *Dio'ren semea*  
Alkatea  
Sekfetarioa  
Ostalaria  
Efejidorea  
Eriko jendea

## I

Agerftokia: Euskaleriko ostitu afloite-xamar bat; mai bat jarleku batzuekin, apai bat edo beste piper-pote ta tomateakin. Iskiña batean zagi bat erdi puztuta bezela lau ankako baten gañean zeaf; ta bi edo iru ate, ta leyo bat.

## OSTALARIA

OSTA. ¡Araiea! (Lufetik papef bat jasoaz) Ezagun da bai, ezagun da nere Praxko moroya oñ Koñtalegiko basefitxoan jayoa dala. Beti esaten, eta beti alperik. Orain konturatzan naiz, zeñ dala-ta mintzatu oi diran nere ostitu onetara datozenak, batek lantu bat eta bestea beste bat. Baganago... ¡araiea!, bitan bat «sobrante» daudela nere etxean: moroyak edo zikinkeria. Ta bat eta bestea ezergatikan ez? ¿Jakin nai aldezute zeñ geria zitzaidan orain dala denpora gutxi? ¡Araiea! Badator oñ gizon bat eta eskatzen du bost zentimoren ogia, (eskuko beatzak markatuaz) sei txakur txikiren babaruna, ta iru ipurtokeñ txikiren ardo urgabea. Ta ez? ¡Auntzaren gaueñdiko eztula! ¿Babarun

ártean ez du bada topatu lau-errealeko zilara? Ta ala dio oñek andik egun batzuetara bere lagun bat: «¡Aizak, motel! Merke jan nai badek juan ari Premiñ'en ostatura; peseta erdi baten gastua egiten duanari, peseta zilara biurtxen ziotek» ¡Bapo ziok! Esan ere badiot, ¡araiea!, nere sukaldeko jan maneatzealeri; «¡motel! oñela bagoatz laister puñut egin beaen gaituk eta ezakeala pensatu gure ostattua Madrilgo «Hotel Ritz» dala, eta dirua iñori «eregalatu» nai badiok, sañuizkiok eltzekoari txanpon za rak. (Entzuten dira txintxeri soñuak ta latigo'aren pin-pun'ak) Bada tofela nago (leyatilatik kapora begira) Bai, bai; (bi eskuak igortziaz) bi jaun direla ematen dute, ta ez mandazayak. Begira, zaldi-gurdi batean etorri dira-ta. Noan, noan, ze nai ote duten (utea irikiaz) Badirudi gaur saítu-irten aundia izan bear duala nere ostattu onetan.

## II

### OSTALARIA, DIO TA KIRIKO

- DIO Jaungoikoak dizula egun on.  
OSTA. Baita bedori-ere bere «konpañiakin». ¿Ze nai zuten?  
DIO Apartek gela bat eta iru bazkari nai genituzke.  
OSTA. ¿Iru? (Eseparatuaz bi besterik ez direla) ¡Araiea! ¿Bi gizon eta iru bazkari?  
KIRIKO Bai gizona, iru; irugaren lagun ori laister izango degu emen.  
OSTA. Ondo da. Ta bazkaria a lo prantzes ¿e? edo...  
DIO ¡Aiskidea! ¿Prantzesak jaten aldute *lukainkarik*?  
OSTA. Ala deizkiot nik, jango dutela.  
DIO Oñduan berdin dio, a lo prantxez edo a lo ingles, gure berri jakin dezu-ta.  
OSTA. Bai, bai, oñenbesterekin badakit, ta laister prantatuko zaiete. Banua aginiek ematera ta laister emen naiz. (Badiot eskubitik)

III

DIO ta KIRIKO

- DIO Etzetoñek beañ-bealakoan gauñ edo biañ ire kantuko maisu izan beañ duan Trípon dalako orixe.
- KIRIKO Trífon jauna esan naiko du aita, Trífon jauna.
- DIO Bai gizona, Trífon jauna. Baeki seme, baeki zenen gogo berua detan gizon oñeri nere bostekua luzatzeko.
- KIRIKO Benetan esango luke nik bezela ezagutuko balu. ¿Eguzkiaren azpian izango ote da gero oñela moduzko gizonik? ¡Ene! ¡gizon oñen eztañia! ¡Ene, gizon oñen birikak! «Fa de pecho» noiz nai jotzen du...
- DIO ¿Ta ik, Kiriko?
- KIRIKO ¿Nik?... Oñtxe nimbait... «re bemol» ere. Ta banago gauñ edo biañ Trífon jaunaren eskola-etxeiko ikasleak ez ote dituan danak oñazpiratuko. ¡Aita! Gañera koplagilea da Trífon jauna.
- DIO ¡Gizona!
- KIRIKO Bai. Oñen koplak gatzik ez dute noski izango gure etxe-kuaneko Karlisto'k kantatzen baditu; baño kanta ditzala gure eriko maisu Lontxo Potxolo'k, eta...
- DIO ¿Ta zeñ?
- KIRIKO Ala ere gatzik ez... Baña bai berandu datoñela gure Trífon jaun ori.
- DIO Apostu egingo nikkek oñez etorñtea iruritu ez eta obeto ta azkarago beañez idi-guñdiren batean ez ote zaigun etoriko; bestela onuzkero... Beaz, ziruritzen zaik seme, eskupeko iru mila bat lau eñaleko emanda gizon ori, aterako auela aurera?
- KIRIKO Aín ziñ nago ze...
- DIO ¿Ta zein deizkiok jañiko degula «piadore»?
- KIRIKO Ori berak jakingo du ondoena; berari eman bezaizkio, ta berak zuzenduko ditu guk ez bezela. Gañera sedazko ari albañua bera baño ere piñagoa da.

- DIO ¡Maradimena! (Leyotik begiratuaz) ¿Ze eři ote diagu of  
geŕtu ta mendi-zeaŕ ofetan agiri dan ori?
- KIRIKO ¿Ori? Artobero eřia.
- DIO Izen egokia.
- KIRIKO Oraintxe konturatzen naiz. Gauŕ goizeko paperetan ira-  
kuŕ det, eři ofetara gauŕ beritan etoritzeko izan beaŕ dua-  
la... asmatuko ote det (buruari atz egiňaz) nola esango det  
nik. ¡A bai! ¿Nola Madrilen kasaka luze ta sonbřailu piko  
luze..? Aita, esan beit, ¿nola deitzen zaiete ministřan  
gizonai?
- DIO Ministřo, gizona.
- KIRIKO Orixe ba, Ministřo de Fomento.
- DIO ¿Baňa, ze esatera?
- KIRIKO Nik aditzera dedanez, buňni-punta bat batayatzera.
- DIO Obe ori ala izatea. Ala beaŕ bada ostatu onetara etofiko  
dek, ¿ta etzak iruritzen egokizko gauza gurekin bazkal-  
tzena konbidatzea?
- KIRIKO ¡Ene aita! Ez beza Jaungoikoagatik...
- DIO Bai gizona. ¿Ezeŕ galtzen aldiagu ori egiňarekin? Modu  
onetara egiň oi dituk, nere Kiriko kutuna, adiskidetasu-  
nak, ta gauŕ edo biaŕ...
- KIRIKO Bai, bai, gauŕ edo biaŕ, ¿ekusi alzenuan Kristo jayotzen...?
- DIO Ken ari órtik motel Nik aditzera dedanez, gizon modu  
oyek, dabiltzenak zuzendu nayez «res publicas» (eztarria  
garbituaz eta aldamenetara begiratuaz) ¿ezeŕ esan ote det? Au  
dek gauzak egoki etortzea. ¡Ene! Esan nai nkek, Kiriko,  
ořelako gizon goi-malačko ta kopetatsu oyek, argi ta atzen  
emaleak izan oi direla. Neri iruritzen zaidak aizea bera-  
ikusten dutela, ta gauza bat eskatu órduko órtxe nunbait  
bi ematen badakitela. ¿Zeŕ deizkiok?
- KIRIKO ¡A, bai! Ořegatik sekula ez dute ezeŕ ematen.
- DIO ¿Ta zeatik ote dek ori?
- KIRIKO Ořegatixe bada; aizea bera-ere ikusten dutelako. Ta Aita  
Santu Eřomakoak bulda apařteko bat ez badiete ematen  
ořelako oeri, banago gaizki ibili bearko dutela azken-  
gaitzak eren zankoak luza-eragiten dietenean; «res publi-  
ca edo řepublika» goratzen dabiltzan ministřo edo gizon-

txo oyek, aginte, ta p̄romes asko egin oi dituzte, ta amarretatik bat goñde edo bete ez. Ori oñela izango da eneretxoa ḡe?

DIO Motel, motel, ni beñepein' beste uste batean bizi netxok..

#### IV

##### LENGOAK ta OSTALARIA

- OSTA. (Eskubitik) Nai dezutenian etori, bazkaria p̄rest dago-ta.
- DIO Ondo da. Aizazu, aiskidea, ḡpestaren batzuek aldituzute ingurumari onetan?
- OSTA. Bai ba. ¡Afaiea! ¿Ez alzenekizuten? Gauñ bautizatuko da burñi-bide zati bat; amar mīla metro oñ izango ditu nún-bait. Bai, izan bear, Moraluko gelditoki edo estaziora dijoa zuzen-zuzen-eta; emen egingo du topo noski Madridl'dik Paris'a dijoan burñi-bidearekin. ¿Ta bai aldakizute zein dan batizatzale? Bada .. bida jañaia! ain izen «alfebesa» da ze... (kopetara eskua eramanaz) ¡A bai! Ministro de Pimiento edo oñela nola bait deitzen diote. Nola nai ere oñdu eñdi bat bañu emen izango degu ministroa dalako ori; ostatu onetan bazealdu bear du.
- DIO Ondo da. ¿Ta ze afayetako palta egiten dio Ártobero'ko eñari burñi-bide oñek?
- OSTA. Ez beza esan ze palta egiten dion eñari; alkatearen lanak dira.
- DIO Berdih dio.
- OSTA. (Besoak gurutzatuta) ¡A, añaia, añaia! Gure alkateak obispo batek bedeinkatu ala luñ eta baso badituala ḡez aldaki? Ta luñ denak... kalabazaz josiak, eta basuak eta zuitzak ezkuñez bete-betiak; eta ezkuñ oek ta ainbeste kalabaza erbesteratzeko nai omen du burñi-bide ori. Gañera gure alkate ori oso *meloí* zalea dezu, ta kalabazak birali ta meloyak ekañiko omen dizkigu.
- DIO Bai, ala izango da noski, Ártobero'tarāk p̄reskatze. Bai. Ni eñdalduna ez naizelarik, eta p̄antxesa oraindio gutxian

go, kofitu det nik Ebro'tik bera ta Endaya'tik gorra, ta badakit zeŕbait munduko berri. Burni-bideak onak eta txarvak dira; onak, beaŕbada, Artoberoko ta Euskalefi guziko kalabaza ta ezkuŕak eŕbesteratzeko; baña txarvak, oso txarvak, meloyak bakaŕik ekaŕtzeke. ¡Bestela ere meloyak obeto etoŕtzen zaizkigu kanpo-eŕitik! ¡Euskalefi gaxoa!

Zuen alkatea Don Diñ dalako;  uleŕtzen al didazu?

OSTA. Zikutza dala esan naiko du,  ala?

DIO Bai orixe.

OSTA. Baliteke, baliteke. Oregatik esango diote baztaŕetan... atxufa ez ta bestea...

DIO Oori da... Kirtena.

OSTA. Kirtena ta oso audi luze ta lodia, Jainkoak barka nazalata. Laister sekretarioa ta biak etoriko dira, ministroarekin bazikaldu bearŕ dute-ta.

DIO Ta... ta...  sekretarioa?

OSTA. «Otro que tango». Peretxiku zuzena. Zikuzkeri oren gañean ere oŕtxe nunbait emango dizkio alkateari bi itxili-purdi ta erdi. Gizon gutiziozogorik... Lau eŕealeko bateagatik begira gero salduko ez ote lukean bere atxua-ere. ¡Ju! ¡ju! Erausia ez balitz, kontatuko nizuteke pŕankogauza, gure sekretarioa zeŕ dan ikusteko. ¡Araiea! Oŕdijo bat. Artoberoko txikia da, ta urtero tokatzen zaye berŕtako seme bati edo biri soldaduzkako sueŕteak jokatzea. Ta nola izango ta ala izango, oŕa, oraindio igaz zan eta oŕa Baŕneko Maŕtolo badijoakio gure sekretarioari, mesede bat egin bearŕ diola; au da, semea kintotzatik askatu. Ta ala dio sekretarioak: —•  Ta?  Bada eskuekorik?» —• Bai ba—dio Maŕtolo'k. —• Bada oŕduan, baŕzuazke lasai etxera, zure semea libŕatuko da, naiz eta gure alkatearen semea kateatuko badegu-ere». Esan da egin. Etori da egun ori, ta esandako Maŕtolo ta alkatearen semeak jokatu bearŕ zuten sueŕtea. Ta  ze egiten du sekretarioak? Saŕtzen ditu bi paperitxo bil-bil eginda, ta biak auŕeneko lumeroarekin, zurezko danboliňa dalako batean; jira-bira badabil meňoa baŕuko paperak nastuko dituala-ta, ta emendik laisteŕ saŕizen du eskua alkatearen

semeak danboliñean. Gure erian noñ-berak atera oido bere lumeroa. Ta ¡zas! ateratzen du esandako alkatearen seme ofek bi paperitxoetan bat; ematen dio maiburuko dagoanari...

- DIO      ¿Ta zeñ? Apostu egingo nuke...
- OSTA.    Jakiña; auñeneko lumeroa ta, juan ari kinto alkatearen semea.
- DIO      ¿Ta sekretarioak?
- OSTA.    Atoñ onera eskupekoia.
- DIO      ¡Ene! Don Din... Don Din... i bai aizela munduko jaun ta jainkoa.
- OSTA.    Ta beste zenbat ofelako.
- DIO      ¿Ta ez daki ezeñ alkateak?
- OSTA.    ¡Ze jakin bearñ du! Baleki... Emen datoñ.

V

LENGOAK, ALKATEA, EREJIDOREA ta SEKRETARIOA

- SEK.      (Iftenaz) Ezetz gizona, ezetz, ez dala ori ofela; au buru gogoña.
- ALKA.     Baietz (Erejidorearekin atereaz: akulua eskuian, ta jazkera beñiz aldan tonpolio ta trápalasena) Jainkoak dizutela egun ta beri on guziori. Baleoke ¿e?
- DIO      | Bai ba.
- KIRIKO    |
- OSTA.     ¡Ola alkate jauna! (Dio ta Kiriko'ri) Atseden guziz aurkezten dizkitzutet sekretario, erejidore, ta akuludun au: alkate jauna.
- ALKA.     ¡Beajundayala! Astoa lenbizi ¿e? (Sekretarioa markatuaz)
- SEK.      Bapo ziok; zozoak beleari ipur beltza.
- ALKA.     Ta zuek, (Dio ta Kiriko'ri) «komisioko» edo ofela ¿e?
- DIO      Ez ba; ikusmiran etofi geranak.
- ALKA.     ¡A bai! Paper-tan ta moldeko letretan zabiztenak zuek.
- SEK.      Ez gizona. Eñirik-eñi ta baztañik baztar dabiltzela, gure eñi koskor onetara bidea auzi dutenak.

- ALKA. (Erejidoreari) ¿Ze esan du direla?  
ERE. Ni... ni... nik, da... kit... Banao esanduala zi... zi... zibilak.
- ALKA. (Sekretarioa'ri) Baña gizona, mintzatu zaitea euskeraz guk aditzea nai badezu.
- SEK. (Ikusleari begira ta isil-modura) ¡Jaungoikoak guarda basoalkate, egunda bere aldian liburu bat eren eskuetan artu ez duten oetatik.
- ALKA. «Bueno», «bueno». Beriketak apaerte ta... ¿ze moduz dijoa gure bazkari ori?
- OSTA. Txit ondo; esandako orduako pronto egongo da, ta ora txartela (Ateratzen du patrifikaratik) Ea, irakuiri daikezu. (Sekretarioari)
- ALKA. (Autik-zurta) Ez, ez, ez dezala irakuiri; orek irakuerten badu, seguro gero prantzesez irakuiriko du. Irakuiri zazu zeorek.
- OSTA. ¡Araiea, araiea! Ori besterik ez bada, astera nua beratik: *Consommé à la Rigolande. Poisson à la Bayonne. Bœuf à la salade...*
- ALKA. ¡Ze arayo! ori beñepeiñ uleitzten diagu. ¡Auéra! ¡Auéra!  
OSTA. Des œufs...
- ALKA. ¿Nola, nola?
- OSTA. (Idatzita dagoan moduan irakurita) *Oeufs.*
- ALKA. (Akuñuakin luha joaz) ¡Alto! ¡alto! O... e... u... f... s; irakuiri dezun bezela ezin izan liteke gauz ona.
- SEK. ¿Zeatik ez? Orek esan nai du, gizona, gure euskeran, peretxikuak eta peretxiku gibel urdiñak.
- ALKA. ¡Ixo! ¡ixo! nik ez daukat erakuszale bearik-eta. Edozeñek esango luke Ártobero'ko alkatea ez dala gizon aitu ta koñtua. Ken zazu œufs ori, dana dala, txarreteletik.
- OSTA. Zañtagitik esan naiko dit.
- ALKA. Bai orixe; ta jañi zazu ofen ordez, txal bat buñuntzian erea.
- OSTA. (Zerbait arituta, ta bi besoak gurutzatuta) Baña ¡ze añaie! ¡Alkate jauna! Begira gero txal-erea ez ote dan izango ministro batentzat janari gordiña.
- ALKA. Bai nai bada. Auéra letani aldi orekin.

- OSTA. (Irakutiaz) *Poulets à la sauce noire.*  
ALKA. (Ezpañak gaibituz) ¡Oso gozoa!  
OSTA. *Des gateaux, fromages, liqueurs, habanos et café au lait.*  
ALKA. ¿Ze olé gero? ¿Pandangoa ere bai, azkenik? Ala beñepein gure Ártoberoko mutil ta neska gazteak óle-óle uju egiten dute or plazan pandangoan arin-ariñ dabilzenean.  
OSTA. ¡A añaia añaia! Ori bai, baña ¿ez aidakizu prantzesak, kape-esnea nai dutenean «café-olé» esanda aditzera ematen dutela?  
ALKA. ¡Kaikuak! Ez nuan uste prantzesak ain alrébesak zirenik. (Eskuak igortzi) Esanak esan, ezin da geyagoko bazkaria. (Erejidoreari) Ik Prontxio zuletú dek ezer, edo...?  
ERE. ¿Nini... nik? Tututu... tik ez.  
ALKA. Bada biok berdin gatxok; nik ere ez ba.  
DIO. Bueno ba, esanak esan, ta gu beñepein bagoazke ¿ala?...  
OSTA. Berealaxe naiz zuekin.  
ALKA. ¿E? (Akutua eskuetan goratuaz) Ez gero juan igesi gure pestak ikusi gabe.  
DIO. Eskerik asko; laisteri gera beriz emen. (Bijoaz)

VI

ALKATEA, SEKRETARIOA, EREJIDOREA TA OSTALARIA

- ALKA. ¿Ta? ¿Itzalditxo ori prantatu da ala?  
SEK. Ezin da obeto. (Ateratzen du txamarteko praktikaratik paper bat)  
ALKA. Eziazu erakutsi. Zuk idatzitako gauzarik ezin irakurri detala badakizu.  
SEK. ¿Ta besteak idatzitakoak bai?  
ALKA. Ezta. Irakurri, irakurri zuk, sekretarioa zeran aldetik.  
SEK. Banua. (Oso leun ta eztitsu) «Ministro Santua...»  
ALKA. ¡Au astaputza!  
SEK. ¿Zer da, zer da?  
ALKA. Ezer ez. Añe, añe.  
SEK. Alaere naigaberentzat egin ote zatzun... (Irakutiaz) Blanka Kastilla'ko alaba, Frantzia'ko ezegegina izateraeldu zanetik...

- ALKA. ¿Ikusten dezute? ¡Au píantsez aráyea! Ta gero naidu, kalabaza audi onek, nik ori guzia buruan sartzea. Gánera, ¿jakin al liteke ze ikusteko duten Blanka Kastilla'koak eta Frantzia'ko eregiñak, guk gauz esku-ártean dakañgun lanbide onekin?
- SEK. Gizon buru-gogoñagorik au dan baño... Gizona, itxon zazu, iñtengo du beste oñek-ere ta...
- ALKA. Ez det ba nai, ta goŕde zazu txotxolokeri ori kolkoan; neroni ere, motela naiz baña, beste oñenbeste esateko trebe naizela uste det.
- SEK. ¿Txotxolokeria, beaz? Ta aritu ari bi egun ta bi gau buru ausitzen itzalditxo ori dala ta ezdala.
- ALKA. ¿Buru-ausitza diozu? Ministroa datoñelako ofekin nik bai alkatea naizen aldetik daukatala buruko miña... buruko miña bakañikan ere ez; tñipatako miña ere bai. ¿Nola demontre kunplimentu eman dezaiokegu ministro jaun ori? Eñiko kutxa zapuztuta. Ta... ta jañano-aranoa! (Buruar atz-egiñaz ta sekretarioari begira) ¡Kaxo sekretario! ¿Jakiñ aliteke ze alderdi eraman duten arako... iru mila eñreal eta... esandako kutxa ofetan genuzkanak?
- SEK. Alkateak ondo daki ori; alperik zabiltz ni nundik abakatu. Mila eñrealak eñiko gaixo-etxeeko aitona-amonak oñak berotu ditzaten amar kañga ikatz pagatu dira. Barberoari mila eñreal eman zaizkio beste ainbeste sangri eñiko gaxoai egiteagatik, eta ospelak sendatu, ta ilea moztu, ta musua garbitzeagatik, or nun diran beñepein bi mila eñreal; ta beste mila eñrealak...
- ALKA. (Ikusleai keñu egiñaz ta begira) Gure sekretario jaunak... mandatu bat dala ta ezdala... igaro dituala ederki asko Donostia'ko uri ta bere Maria Kristiña'ko ostattuan... zortzi egun. (Sekretarioari txamartek ojaletik zerbañ tiratuaz) Bizkoña zera baño... ¿zuk neri ziria sartu?
- SEK. Oyala ezagutzen duan jostuna, aditu izan det, ez dala jostun pañala.
- ALKA. ¡Ixo! (Eñjidorearri) Ta gauzak ofela direla gzeñ diote eñiko bizi-lagunak?
- EÑE. Mimi..., mi..., miau.

ALKA. «¡Malo!» Katua elorrian dago ta armea katu efdikoan. (Ostalariari zuzenduaz bere izketa) ¡Ostalaria! Gauz alkate izateak baditu bere lanak. ¡Ze esango degu! Eskefak ume-umetatik datorkitala oñtarako trebetasuna.

SEK. ¡Alkate jauna!

ALKA. ¿Zer da, zer da?

SEK. Mostoles'ko alkateari eze, zuri ere ipini beaean izango gera plaza-plazan arlosazko iduri bat ta beste onoko idatzitxo au:

Artobero'ko alkatea  
egin dala bai zelebria...  
Buñi-bide bat egindik alajaña  
kalabazak ebesteratzeko nai aña.  
Bat... bi... iru ta lau...  
tripa-zoriak jango al au.

ALKA. (Ostiko puntako bat emanaz salbota...) Umeak isilik ze?

SEK. (Eskua eramanaz) ¡Ene alkate jauna! Orantxe adara jo didazu. Beste ofenbeste... Nere... diñatasuna... leku jasoan ipini dezu.

ALKA. ¡Ze arayo pola! Gauzak eziñ obeto atera; dena pronto daukagu. Paliorikan ez degu ta bearikan ere ez, eta palio ordez, nere amandarearen guardasol urdiñ eta galant bat badegu; or nimbait eta... ederki. ¿Ze ba.? Au ez da Madridil da... Lontxo adar-jotzalea ere ederki tajututzen dala nago; eta nola jotzen duala ge o adafarekin «Martxareala»? Píaska Antoni azpikoa ta Prontxi goikoa jakin gañean ipiniña dauzkat, baezpadare menistroak bere atsua ekartzen badu, bi sorta-lorakin pronto egoteko. Sakristauak esan dit beriz, ez bildurik edukitzeko, dantzatuko dituala, jañayo-pola! ¡bai orixe!, dantzatuko dituala elizako kanpayak din-etik asi ta dun ta dan-eaño. Ta emen artillerik ez degulako, otsegin diet Txamunoko Betokeñ ta Saguxoroko Eñenari, suarizko eskopetarik bai ote duten galdetzeko, ta bayetz, baditutzela bi, Marueko'tatik ekañiak, eta egoteko lasai, ta «deskuido» santuan menistroa edo besteren bat iltzen badute, beritak garbitu nailitzte-

kela kontuak. Eskola-umeak beriz praktikan ezin kabituta dabiltz, eta esanda daude otseiteko gogotik «Gora menistroa» ta «Gorago oraindio alkatea»; ta gizonak beriz, ez ditezela eskuak praktikaran sartuta egon, ez; goratu deztela ereljioa ta beratu bai, oso beeratu... etiko petxak. Orlan, orlan etoriko gera etiko Konseju-etxera, Konseju-etzetik ostatu onetara, ta emen nik... Menistroari zuzenduko diotan ongietoria, ez ta Kanobas zanak berak ere etzuan esango. Ta ondoren—zuri esaten dizut sekretario jauna; artu gero ondo gogoan *¿e?*—zuk emango diozu onoko paper au, ezpanak estu-estu eginda, ta aorik zabaldu gabe: paper orlan ionbratzen degu guzien izanean eri onetako seme beneragarria.

- SEK. *¿E? ¿Zeír da ori, danon izanean? Gauzak diren bezela esan bear dira; zuk ionbratu, ta danon bizkar bota.*
- ALKA. *¿Ori ondo ez dala diozu? ¿Ni ez al naiz bada danon nagusia? Ni esatea, gu esatea bezela da. Ta gero juango gera burni-bide oltara: aufena batizatu, ta gero Madril'go ta Paris'ko burni-bideakin ezkondu, ta gero...*
- SEK. *Mártopilak lenbizi ta ezteyak gero.*
- ALKA. *¡Ori da ori! (Erejidorea sorbaldan apur bat joaz) ¡Ta zuk zeír diozu?*
- ERE. *Nik ezeír ez; baña nere atxoak ala dio: gaur-ere gure arakiñak ga... ga... ga... jau dek ezin esana!, galestitu... tu... tu duala aragia.*
- OSTA. *Ni beñepein (eflejuari begira) astera nua maya prantatzen.*
- ALKA. *Gu ere emen orain-oraiñ bezela alperik gaude, ta guazen len-bai-len eriari ikustalditxo bat eman eta goiko ta beko gauza dien gizontxo danak bildu ta gure menistro guziz altsuari bidera ixtetzena. ¡Esti atzera (Bultzaratxo bat emanaz) esti sekretario! (Ta badijoatz aufena alkatea, ta ondoren erejidorea)*
- SEK. *¡Aja... ja! ¡Orlako kirtenik! (Ta izkutatzen da)*
- OSTA. *Orenbeste iskanbila, (besoak gurutzatuta ta batera ta bestera dabiela) orenbeste istilu, ta gure Madril'ko gizon orek ez etori egin bear luke gero. Nik beñepein bazkaria prest daukat, eta ona; baña... kontua ere alakoa izango*

da. ¿Ze ba? Kale gorritik ez dator ezer, ta burri-bidea bustiko bada, datofela... afdó napaña, ta... gañetikoak, eta eriko bizilagun petxeroak... egin dezatela balur. Bai, banua; juan egin bearko det nere moroyari aginduak eman eta maya prantatzera. (Izkutatzen da)

## VII

### BETI-GOSE

BETI (Arpegi-melar ta tripa lodi puztutakoarekin ondo xamar jantzia irten bedi) Ni bi ankakoa izan beāean lau ankakoa izandu baniz ;jakiña! ez dago ze esanik izango nitzala... eper txakur edera. ¡Ene mutilak! Au usai goxoa (Usai egiaz) ¿Nork ekaři nau ni onera? ¿Alabeařak? ¡Beajundayola alabeařari! Tximista bat egiten zioat nik lařosa, klabeliň eta beste orelako lora ta belařen usaiari. ¿Goseak begiak zintzoak dituala? ¿Ta sudurak ez? Bai, bai, badala Papus, Papus badala; nerori ere enetxok Papus txařa. Nere tripatzar oneri begiratuta edozeňek esango likek ni goseak nagoala. ¿Bai aldakizute zein dan nere aspaldiko lapikokaria? Goiko elementariko... aspoa ¡Ene! ¡Au nere tripa-zoria! ¿Noiz jan ote nuan nik azkeneko aldiz jan beroa? (Eskua kopetara eramanaz) ¿Atzo otezan? Ez. ¿Orain iřabete? Ez. ¡Nik al dakit bida! Probatu ez duanak ez daki zer dan gosea. ¡Ene nere sabela! Egon ari bai, egon ari apur bat, besterik ez bida ere zutikan; laisteri ire ordoi oyek gařitu ta pirikalari oyek arutz-onutz dabiltzela ipiňiko zituagu-ta. Egia esan bear badet, ez triputsek, ez tixikak ez prumonik eta ez da ere «grippe» dalako moxoro ořek, onoko beste gaitz beri «tripa-zoria» deitzen zayon onek ainbeste ez nau ikaratzen. Zeřbaiteatik esaten dute onoko: *A peste... fame... et bello...*

## VIII

### BETI-GOSE ta DIO

- DIO (Irtenaz ala dio) «Liberanos Domine». ¿Ze? (Oso ariturik)  
¿Au ote degu Třipon jauna? Badirudi beñepein třipas kon-  
prome. Egun on ta berion dizula gure Jaungoikoak. ¿Nola  
zaude?
- BETI- (Parez parez) ¡O! ¿Ni ondo ta zu?
- DIO Ongi esan beariko. Beaz (zeaňka ikusleari begiratuaz) atre-  
bentzikeria da baño ¿zu izango zaitugu Třipon maisu  
jauna?
- BETI- (Berekasa) ¿Ni Třipon? ¿Ni maisua? (Aldamenera begiratuaz)  
Bai ba, ta ¿ze?
- DIO (Lepo-lepotik laztanduaz) ¡Třipon jauna! ¿Ze? diozu? Ordu  
bete oŕtxe nimbait zai gaudela zurekin batera bazkaltzeko.
- BETI- ¿Nere zai bazkaltzeko? Baňa gizona, ¿zeñgatikan ez  
bada lenago oartru? Nik dauketan gosearekin...
- DIO ¿Gosea?
- BETI- Bai gosea... esan nai det, irikazioa edo amoñazioa zuri  
musu laztan bat emateko.
- DIO ¡Ene! Eskeřik asko, eskeřik asko. Jakin det beriz musiko  
maisua ezeze beršolaria ere oso trebea zerala.
- BETI- ¡Gizona! (Aldamenera begira) (Nik baňo geyago dakizu).  
Ni bai, orixe bai. ¿Ta bai aldakizu nere beršorik obeenak  
noiz izan oi diran?
- DIO ¿Noiz gero?
- BETI- Bada... batez-ere plater bat třipaki ederki pŕantatuta au-  
řez-aufe mai batean ipintzen zaitanean. Nere beršoak oso  
sonatuak dira. ¿Badezu aditzerik ala?
- DIO Nik ez.
- BETI- Ora bada bat. (Eztaria gařbiturik eta kantari) «Kriskitin, kras-  
kitin lařosa klabelin». (Třipotxari bi eskuakin eldurik) ¡Au  
gose amoňatua!
- DIO ¡Tximista gořia! Beršo dyek nimbait-nimbait aditu dituala  
nago.
- BETI- Ez nuke ezetzik esango. Arapatu egingo zizkidaten. Mun-  
duan ainbeste lapur nola bait badagoan...

- DIO Bai, bai, añazoi dezu. Gaué eñi onetan pñantazio aundiak dabilzkite menistroa datorela edo...
- BETI Datorela, datorela; menistroa ez da noiz nai ikusten.
- DIO Bai, alaxen da. Nere Kiriko ere zu ikusteko ifikatzen dago ba, (balioea bezela) ta otsegitera nua ta itxon zadazu apurtxo bat.
- BETI ¡Ze! ¡ze! ¿apurtxo bat?
- DIO Berealako batean emen naizela nere Kiriko'kin.
- BETI Ez, ezazula «enredatu»; auñena beste lan bat bakañka erabaki biagu ta.
- DIO ¿Ze lan gero?
- BETI ¿Ze izango da? ¡Jeup! (Bi txalo joaz) Ea bi baso-erdi. Beaz (Exeritzen dira biak) nere zai oñenbeste denboran bazkal-tzeko ¿e?
- DIO Bai ba. ¡Au Tripon jauna! Ta oñtara geran ezker, ¿ze moduz bada lantegi edo musikako akademimi... edo...
- BETI «Lantegia». «Akademimi». ¡A! Lantegia ez dago gaizki... lantegian lana egiten duanak badaukala irabazia. Akademimi... beriz ta beste orelako... *ini* asko, Italin, aizkide, Italin. (Bi baxo erdikin sartzen da ostalaria, ta bereala izkutatzenten da)
- DIO Ta esan ¿ze moduzko mutila iruritzen zaitzu bada nere Kiriko? ¿Aterako ote degu auñera-edo...
- BETI (Baña... baña ¿zein arayo ote degu Kiriko dalako ori?) Auñera atera, ¿zein gero? ¿Kiriko? ¡Bai orixel... Kiriko bezelako motilik... Ikusi nuan beziñ laixter, bai nik berari begiak azkar bota. ¿Nola ez gero? ¡A! ¡Kiriko, Kiriko! Kiriko bai dala Kiriko.
- DIO Mila eskeñ. Zuri zoñ dizugu guzia. ¡Ea! Eska zazu orain nai dezun guzia.
- BETI (¡Amoratua! Bazkaldu dezagula beritik). ¡Jaunak! ¿Ze eskatuko det nik? Nere zai ainbeste denbora pasa deztela leen esan didazu... bada orain ez dezagula galdu jatordua, ¿ez da ala?
- DIO ¿Baña ez aldakizu nola idatzi nizun eskutitz bat, esanez au ta beste ura; eskutitz bat, Tripon jauna, eskutitz bat?
- BETI (¿Eskutitz bat?) ¡A! bai. Orain oroitzenten naiñ; ederki (da-

- DIO tzita ala-ere. Baña gure Akademimi... edo lantegian ain-bestek eskutitz aritzentz dira ze...
- BETI- ¿Ta ondo edo txařki deizkiozu bada eskutitz artan azal-tzen nizun lanbidea?
- BETI- (¡Maria Santísima! ¿Ze lanbide ote degu ori?) Prexisa-mente orientxen gañean neukan zurekin itz-aspetzko gogua. Lanbideak asko dira, baña eskaleak geyago, ta lana ondo egiten dakitenak kontala. Órtik atera zazu bida kontua, aldapa gorako bideari jařaitzeko lana eŕuz egin bear dala, ta gaiň-beran edozein dala trebe nai eztaere bein edo bein kopetakoak artzeko perillakin. ¿Uleŕtzen diazu ezer ala?
- DIO Badirudi zerbait ikusten detala.
- BETI- Jakiňa bida; ain aŕgi ez da eguzkia bera-ere. Itz batean bukatzeke; emen gauza bat egin bear da, ta da, ya ta naizen ni aiň trebea ta aitua gauza oetan, nere kaŕgu utzi zazula lanbide ori, sedea bezin leun ta egoki irtengo du-ta.
- DIO Bai baño, nik oraindik jakin nai nuke...
- BETI- ¡Jakiňa! Danok dana jakin nai genuke, baña badakizu órdea dan dana esatea-ere ez dala konbeni. Gure lante-gian beriz lan-modu asko daude, ta beragatik dan-dana jakin nai izatea... emakumea izatea dala iruritzen zait. ¿Bagera ala?
- DIO Bai baño, entenditu gaitezen. ¿Ez litzake izango berdin nik zuri ematea iru mila peseta, ta gero...
- BETI- (Bat-batean zutituaz) ¿Nola, nola? Orixe bai, ta zenbat ta azkarago obe (¿Amesetan ari ote naiz?) ¿Iru mila peseta esan ez dezu? Tira bota, ta nere kontu bi baso-erdi oyek. ¿Ta iru mila peseta oyekin ze egingo zenuke?
- BETI- ¿Ze egingo nuken? Jaupa berealaxe.
- DIO ¿Eee?
- BETI- Bai gizona, jaupa. . *Akelara Kredito-Trutik*-keko biga-řen buru ipintzen ote dedan zure semea edo...
- DIO Baña... jařayeal! jařayeal! ¿Ez naiz bida etori nere iru mila pesetak etxearen aztura? (Jařiekutik zutituaz) Banua, banua Kiriko'ri deitzea.

- BETI (Zorioneko Kiriko!) Utziozu gizona pakean Kiriko da-lako ori.  
DIO ¡Baita ondo eman-ere! (Izkutatzen da)

## IX

### BETI-GOSE ta ondoren KIRIKO

- BETI ¡Nere bazkaria leku onean zegok! ¡Kiriko madarimen ori!  
Ekaři zoriona ezpañetaraño ta aurik ezin iriki. Tíripa-zoňiak beriz ito bear. ¡Au lana! (Au-zabalka) Iru-mila pese-tak beriz... jepo. Dana osatzeko polita izango litzake musikako Akademimi... ko don Tíron maisua dalako orek ta Kiriko'k alkar ezagutzea. Onduantxe bai egingo genukela paper destraza. Bazkaldu ta gero .. ¡Pss...! Ez liket ainbeste ajola, orixe ez. (Geratzen da paretako paper edo beste tresna bati begira).
- KIRIKO (Ittenaz) Bada jaunak, au da lana, ez nun eta ez an izkutatu zait aita, ta ezin topatu iñundik iñora. ¡Ixo! (Beti-gose'sti ereparatuaz) ¡E! ¡Aiskidea!
- BETI- (Arpegiz-arpegzi Kiriko'rekin) ¿Ze? ¿Ze nai zenuke?
- KIRIKO Ikusi ote dezun aldefdi onetan nere aita dirudien bat.
- BETI- ¿Dio jauna ala?
- KIRIKO Bef-bera.
- BETI- ¿Zu izango zañugu Kiri... ko dalako ori, ala ez?
- KIRIKO Bai ba.
- BETI- (Enetxua! Agertu da oreatik... Ala ere gaitz erdi: ez du pizkora ematen; ez dirudi polborea asmatu zuana). Bada esango dizut; zure aita Dio jaunak ártu du eskutitz bat Tripon'ek biralita esanez ezin etori litekeala bazkaltzera, ez-bear bat soñtu zayola-ta, ta bazkaria galdu ez dedin biok zapatu dezagula.
- KIRIKO (Oso afituriik) Ori dek ori. ¿Ezin etori litekeala Tripon jauna?
- BETI- Ez ezin daiteala etori. Munduko gora berak, Kiriko, munduko gora berak. Ez nun ta ez an gutxiengen batek pensatzen duanean, of zetorek malukarea.

- KIRIKO (Lari-lari ze aditu bear ote duan) ¿Malukarea, zer?
- BETI Bai, ta ez makala ere; amaika beri txar emateko jayoa nazu ni, ta ofa, beste egitekorik gabe birali naute zuri esatera, ze, Trian jauna oiratuta dagoala, ta asta-naparenri batek daukala lari baño laři, ta sendagiňak diola beriz... ze naidezu... «que noches» (¡Trian gizajua!)
- KIRIKO (Oso kupituta, lastuka esku-zapi bat begietara eramanaz) ¡Aguñ nere izate ta gizon-egitea! Txisarak izango ditu gizajuak, oso gozo-zalea zan-da...
- BETI (Apur batean ixilik egonda) ¡Ea! Ala badezkiozu noiz nai bazkaltzen asi gindeke.
- KIRIKO ¡Baño gizona! ¿Añ beri tristea artu ta bazkaltzez nor gogoratu?
- BETI ¿Nor? Ni beñepein bai. Ta badezkiot neronek bakarikan ere ¡begira gero! ez ote nukean ezur ta mami dana irintziko.
- KIRIKO ¿Ta nun dala esango zenuke nere aita?
- BETI ¿Zein gero?
- KIRIKO Dio jauna.
- BETI ¡Aaaa!... Bada... Trian jauna ikustera joan da. Banao onuzkero azkenekotan egongo daia. Bai, ořtxe nimbait; egingo nuke apostu apaizak bere pasa-portea eman diola.
- KIRIKO ¡Ene, nere Ama Doloretakoa! ¡Ene ba! ¡Ene mila bider!
- BETI ¡Au ez beara! (Eseritzen da)
- KIRIKO ¿Ze, ze demoniaru da au? ¡Lamentazioak alajaña!... (Asare-asare) ¡Ea! ¿Bazkaldu bear degu ala ez?
- KIRIKO (Bixi-bixi) Jan zazu gizona, jan zazu ostatuan dagoan guzia gogoa badezu, ta utziazu neri pakean.
- BETI (Gogorik badet jan nezakeala ostatuan dagoan guzia. ¡Bai orixe!) (Bi eskuakin tripa-bafna estutuaz) ¡O urda la urda la; ez dezu orelakorik ikusiko!) (Juaten da eskubitik)

X

KIRIKO, gero Dio, ta ondoren BETI-GOSE

- KIRIKO Peñando Amezketařak ala omen zion; batzuek Markes ta beste batzuek... mandako jayo oi dirala. Ni beñepein

ez nauk markesa ber-bealakoan izango. Nik oraingo oñetan ez bearen bat egiten ez badet... ¡Juu! ¡Begira gero! Baña ez..., ez dago eñemediorik. Au juan zan. Baña... ¿baña ez ote dit neri gezurra esan jaun oñek? ¿Bai ote? ¡Ene, ala balitz! Baña ez; jaun oñek ezagutzen gaitu guziok, eta ez dirudi gezurtia. ¡Baño gizona! ¡Ori da alabeara! Noiz ta gaur il ari; nere etorkizuna erabaki bear dan ordu-orduan.

DIO (Atetik) ¡Kiriko!

KIRIKO ¡Aita! ¡Aita! Eziazu ezer esan, badakit zure baruko berita... Típon jauna il dala.

DIO ¿Típon jauna il dala? ¿Ori ere bai? Geyenean badiagu guk efenen bat. Oraindio orain egon netxok ber-berakin ta gure ikuluko txeria—alimea apartatuta—bera bezin gizen ta potxolua zegoan orain aristian, eta gil dala beaz?

KIRIKO Bai, ala izango da, baña bere potxolotasun eta gizentasun guziarekin nere musikako maisua izan bear zuan ori, eman diote onuzkero luña.

DIO (Beso biak gurutzatu ta geria makur-makur duala) ¡Baño Kirikooo! ¿Ze esaten dirak? ¿Egia ote dek gero?

KIRIKO ¿Ez da bida egia izango? ¿Zeatik uste dezu bazkaltzera etori ez dala? Nik uste nuan berari iltzen laguntzera juan ziñela.

DIO Baño... baño ¿ze matila arayo dek ori, Típon jauna emen egon badek?

KIRIKO Bai bear bida, egongo zan ¡konprome! baña... astanapari... «galopante» esan oi zayon batek bealako batean gañbitu ta luña emanik izango dute noski.

DIO ¡Ori dek ori! ¡Araya! ¡Araya! ¡Ori dek il bear! Bai, nai ta nai ez golpeko edo bat-bateko eriotza izana izan bear dik; ¡begira! oraindio ez dek ordu eñdi bat, ementxe aritu gaituk i gora ta i bera, ire eztaria au ta ire eztafia ura; denborarekin Gayarre ainbe izango ote aizen nik; Gayarre baño geyago izango aizela arek; kontu oietan aditu gaituk motel. ¡Au bai data okeña alde danetatik!

BETI- (Irtezen da eskubitik) Atzekoz aurera jayoa ez banaiz gero ni. ¡Au suerte malapartatua! Eziñ iñundik iñora topatu Típon jaunaren bazkari-lekua.

- DIO (Trípon jauna ikustean oso mirarituta) ¿Ze tximista araye da au? ¡Piztu alajaña!
- KIRIKO ¿Zeiñ, (zotituaz) zeiñ, aita, zein?
- DIO Begirakiok, Trípon jauna, gizona, Trípon jauna.
- KIRIKO ¿Nola? ¿Trípon jauna? ¿Zein?
- DIO Jaun auxe gizona, jaun auxe.
- BETI- Ni bai, ni (¡Galdua netxok!)
- KIRIKO ¿Ze izan bear du onek Trípon jauna?
- DIO Ire kantuko maisua, gizona.
- KIRIKO Ez aita, ez.
- DIO ¿Ta gizon au al da il dana? ¡Ze egun dukateko mandua!
- BETI- ¡Gizona...! ¡beajundaizula!
- DIO «Konpañeo», ezdabaida onetatik atera biañ gaituzu.
- KIRIKO Nola edo ala esan bear diguzu, azaldu bear diguzu.
- BETI- ¡Jaunak! Nik gogo onez ageitu edo azalduko nizuteke... baña egia esateko, ni bazkal-auretik, oso... satora naiz. ¿Bagera? Jotzen ditu bi txalo?
- OSTA. ¿Ze deseо zuten?
- BETI- Jaun onek ofdaiinduko dizkitzu leen erandako bi baso-erdiak. (Izkutatzen da au-zabalka ezpañetan gurutze bat edo bi egiñaz).

XI

DIO, KIRIKO, ta ondoren OSTALARIA

- DIO ¡Onetxek jo ziguk adara! Tori, tori. (Ofdaiindua ostalariari bi baso-erdiak) ¿Zeruko santu ta santak argi egiten dutela? Bai orixe. Ondo genetxeen iru mila peseta eman banizkio. Iru mila bizkaoreko obe
- KIRIKO ¿Nola da ori?
- DIO ¡Kaiku alaena! Berak zuzenduko zituala, bai, zuzendu, gure pauso guziak, ta emateko iru mila peseta. Bera irtengo zala danan piadore
- KIRIKO ¡Alproja aundia! Baita Trípon'en biziaren piadore-ere.

- OSTA. Irrietzen da eskubitik! ¡Jaunak! Nai dezutenean maya pronto dago.
- DIO Bai Trípon jauna etoñita balego.
- OSTA. ¿Trípon Loñkakoa ala?
- DIO Beñ-bera.
- OSTA. Ezin etori, etoria dago ta.
- KIRIKO ¿Bai ote gero?
- OSTA. Baita bai-ere. Ora emen bere txartela (Erakutsiaz)
- KIRIKO Bai, ezin ukatu.
- OSTA. Amaikatako puntu-puntuau emen zegoan.
- DIO ¿Ta nola bazkaldu du bada bakañik?
- OSTA. ¡Nola bazkalduko zuan...! Ora zeñ gerita dan. Trípon jaunak berak esan didanez, topo egin du ikusten danez Trípon dalako onek jaun batekin, ta jaun oñek esan dio — sobraere bazeñian Trípon jaunaren etorkizunaren beri—ez duala zeatik itxoiñ iñori, Dio jauna arkitzen dala oso gaixo ta azkenekotan... asta-napañeri bat dala ta ezdala.
- KIRIKO ¡Amoraya! Jaun oñek asta-napañeria dauka guzientzat.
- DIO Dio jauna ni banaiz oñdea
- OSTA. ¿Zu?
- DIO Ni, bai, ni.
- OSTA. ¡Arayea! (Besoak gorutzatuta) ¡Arayea-arayea! Matasa naste au arilduko duan atxoa...
- DIO ¿Ta ez aldio jaun oñek esan beriz Trípon'i, berarekin jateko oñdena duala?
- OSTA. Orixe bera, baña jan gabe gelditurik izango da; erantzun omen dio Trípon'ek, berari bakañ-bakañik bazkaltzea gustatzen zayola.
- DIO Ondo egüña. ¿Ta zuk ez aldezu ikusi ijito edo... pardeleñ afaye ori?
- OSTA. Nik ez.
- DIO Seme: ikusten danez au juan dek. Eta ondoena izango diagu tripa-zoria il... pandango au bukatu, ta etoñi geran bidetik juatreñ, ta portunon deyela danai. Amaika kontu kaskañagoak ipini oi zituztek paperetan. Bai, seme, bai. ¡Au juan uan!
- KIRIKO ¡Akabo bada nere amesak!

- DIO Bai, bai; naiko jaíduna egin diagu, pare pŕanko beriz erian egingo zigutek, eta... kontu bat eta kontu bi datorela orain bazkaria.
- OSTA Mai seŕbitzaria zai dago. (Izkutatzen dira aita ta semea, biak burua makonka)

## XII

### OSTALARIA ta ondoren SEKRETARIOA

- OSTA Paperak diotenez amabietan puntuau emen egon bear zuan ministroak. (Eŕlejauri begira) Oraintxe dira nere eŕlejuan amabiak eta iru lauŕden, geldi ez badago beñepein (belafira eramuz) nere eŕleju au, ta... emen ez da ezen aztaŕenik. (Begiratzen du leiotik) Ta kanpoan ere ez da ezeren aztaŕenik. ¡Ixó! (Aditzen dira oso uŕuti bezela kanpai-soñu dunbatako ta arma-soñuak) ¡A bai! Ez du uŕuti izan bear ministroak. (Parez) Gure alkatea ona ibiliko dek pŕakatan ezin kabiturik.
- SEK. (Saftzen da oso pŕesaka ta beikokiko izerdia legoŕtu ta keñu egíñaz) ¡Ene! ¡Ene! ¡Enetxua! ¡Emen dala gure ministroa! Alkateak birali nau, aguro bai aguro, ipiñi itzatzula gauza danak tente ta bere lekuan, bada ministroak gure burni bide ori batayatu aurétilik, ementxe auréna atseden-aldi bat egin nai emendu-ta.
- OSTA Nai duanean etori liteke, emen dana prest dago ta... ¿Dana pŕesto esan def? ¡Ez, ez! (Ministroak ez aldu marķaztegira (n.º 100) juateko gogorik ekaŕiko... bestela...)
- SEK. ¡A ostalaria, ostalaria! Pŕeskoa naizela, pŕeskoa. Egunda santa sekulan olako laŕirik... (Batera ta bestera ibitzaz) Ministroari zuzendu bear diotan itzalditxo oŕetan sopiñen batek mututzen ez banau, gutxienaz banago ionbratuko nauela bere bigaŕen sekretario.
- OSTA Iainkoak aŕgi zaitzala bada; ¡orixe ola balitz!
- SEK. Ez dakit bada, ez dakit. Bildur naiz; gaizki asi ta ondo bukatu, ezin litekean gauza dala nago. Begira; ¿gaur goi-

zean ze pasa zaitala uste dezu? Ministroa datorrelako ofe  
kin, asi naiz ustez iskilaratatik bera, ta, g̊ez det bada  
aposentuko leyotik nere burua bota kanpoko alderak? Es-  
kerait bostgañen bizitzako leyotik zala, ta bean beriz  
gůrdi bat garo... ¿bestela?... Beste oñenbeste... Ez; bil-  
duñ naiz izeñdi otzen batek ez ote nauen ixilerazi ta  
kukurutuko.

OSTA. ¿Bai aldakizu bide-txiñ bat, egunda bere aldian ez ku-  
kurutzeko ta ez ixiltzeko?

SEK. ¿Nola gero?

OSTA. ¿Nola? Isiltxorik egonda.

SEK. Ori bai ezin litekean gauza dala. ¿Ni gauñ ixilik egon?  
¿Ta noiz nik izan nezake ofelako aukerarik nere jakin-  
duriko ta nere izketako doai berdingabeak azaltzeko?

OSTA. ¡Gizona! Oñ konpon, Mari-Anton.

SEK. Bai, nik konponduko det peñta. Ta orain, banua, banua  
gure gon-goneko... gizasente.. ministro de Fomento'ko  
dalako oñi itxoitea. Beritan dala nago. Baita izan ere. (Adi-  
tzen dira berebiziko iskanbilak, kanpai-soñu ta dunbatako; ta ots  
danen artean entzuten da adaf-soñua *Martxa ereala* joaz, «gora  
ministroa» ta «gora alkatea» deadarka ari da beriz efiko jendea;  
at sekretarioa juanik da).

OSTA. (Leyorik begira) Agiri dira... Ministroa aüretik... Alkatea  
ondoren... ta eri guzia atzetik. Beritan dituk. Oraingoan  
uste det amerikano biurutuko naizela. (Ate-aldera bijoa Go-  
ra datozi... iskilaretan ots aundia da... Oña emen.

### XIII

BETI-GOSE, ALKATEA, EREJIDOREA (au guarda-sola itxita)

SEKRETARIOA, OSTALARIA ta eriko jendea

ALKA. (Íñtenaz ta beso biak zabalik esku batean akutsu duala) ¡Leku!  
¡¡Leku!!, Jaungoikon izeneko gizon San Balandran oni.  
¡Potx! ¡Potx! Ministro altsua. (Azaltzen da Beti-gose, minis-

- troa dalako ori, guardasol urdin ta galant baten azpian) ¡Ze aray! ¡Emen gaituk!
- BETI. Mila esker... Miloika esker danori, egin didazuten aíera eder onegatik.
- OSTA. (Belaunikatirik) Ongi etoria izan dedila, ministro jauna.
- ALKA. (Atzera bultz piska bat egiñaz efiko jendeari) ¡Esti atzera, esti, nere eri maitea! ¿Ta gero? Kontu ¿e? Iñorik ez dezala emen kukurukurik jo.
- BETI. Baña ¡jaunak! Esanda esanda ere. Gaur bezin pozik eta alai, ez naiz egundaño arkitu. Esan: or puzka ari dan ori «Banda Municipala» izango da noski?
- Sek. Esango diot jauna...
- ALKA. ¡Ixo! ¿Ez aldakizu zuk izketan asteko aufena baimena eskatu bear dala? ¡Ministro jauna! Esango diot. Mundu onetan ogirik ez duanak otasa jan oi du, ta ez ogi ta ez otasik ez duanak... artoea; ta berdiñ, guri ere orixe geratzen zaigu: «banda municipalaren» órdez... adára.
- BETI. Dana dala, batak jo besteak jo, dana dago ondo.
- ALKA. Ala izan beariko. Betoz aulkia, ministroa ta justizikoak ez gaude orela ondo ta. (Ostalariaiak ta sekretarioak auferatzen diezte jarlekuak. Beti-gose jaítzen da danen aufez-aufe baña aparte xamar, ta alkatea, efejidore, sekretario ta ostalaria beste aldetik, Beti-gose aufez-aufe dutela, ta atzetik efiko jendea. Ixitzen da adar-jolea) Ezin da obeto. (Zutitzen da) Ixo gero, ¿e? (Ateratzen du pŕatikaratik esku-zapi galant bat, ta bere bekokiko izerdia legortu ondoren ta Beti-gose'ri begira dio): ¡Menistro jauna: au... ta... ura! (Beti-gose'k egiten dio buru-makurketa) Alkaten eriak Artoberotaren bidez...
- SEK. (Alkate jauna, orela ez).
- ALKA. ¿E? ¡A! Artoberoko alkateak eriaren bidez, orela ez...
- SEK. (Alfebes)
- ALKA. Isilik utzi zaidazu, bestela emango dizut nik kara... ko... les. Diot bada (eztaria gaibituaz) Artoberoko alkateak daukala oso onra aunditzat berori agurtzea...
- BATEK. ¡Beajundaizula!
- ALKA. Neri gustatzen zait...
- OSTA. Txala buñuntzian ereta.

- ALKA. Neri gustatzen zait bakoitzari berea ematea ta oŕtik eta emendik! ¡Menistŕo jauna! Iombratua geratzen zera Ártobero eŕi onetako semerik kutunena bezela. ¡Esan det!
- DANAK ¡Beajundayola gure alkateari! ¡Ori dek, ori! (Txalo joaz)
- ALKA. Orain sekretario, eman zaiozu paper edo Iombramentu ori. (Jaikitzen da sekretarioa, ta aterarik bere txamofteko pfatikaristik paper ori, ematen dio Beti-gose'ri gefi-makurka baten ondoren, eta badioa sekretarioa bere jaflekura)
- BETI- Eskeŕ mila. Irakurteria nua danon baimenarekin. (Irkitzen du papera, ta jende dana lepo-luzaka ze adituko) Tŕipakiak tomatearekin... bi peseta. Patatak...
- SEK. ¡Ama Doloretakoa! Nere etxeandŕearen kontua. (Kentzen dio bizkof papera eskuetatik esanez) Baŕkatu begio jauna, burugabeko gizon koskor oni.
- ALKA. ¿Beaz, ez dezu ekaŕi Iombramenturik?
- SEK. Ez det bada ekaŕi, alkate jauna; baňa buruz ere uste det tŕebe izango naizela paper arek diona esateko. .
- ALKA. Begira gero ¿e? pŕantsezkeriren batekin irten
- SEK. Ártobero'ko eŕi leial ta ezin da geyagorañoko... gaŕbiak, astindu du, ¿nola ez?, ta bota du egunda betirako, bere ezindasunaren gaitza. Eriotzari ezin iges egiñ iñola, baňa, ministŕo jauna, berori gureganatu dan bezin laister aldean- du da eŕi onetatik zoritxaŕaren mozoŕoa.
- BATEK ¡Ederki!
- DANAK ¡Gora gure sekretarioa!
- SEK. Eskeŕik asko nere eŕitar maiteak, eskeŕik asko. «Ártobero'ko eŕia, ez nik diotalako, baño beti izanda eskeŕ one- koa. ¿Ta gauŕ? ¡A! gauŕ, iñoz baño geigo; ta beragatik gure eŕiko etxeko órma-paretan «in ceterum» agerí-ageri egongo da zilaŕezko kaŕtelo bat urez idatzita, gure umearen umeak ta ume oen ondorengo danak oroitu ditezen nola Kapa-Rotas ministŕo Fomentokoa, Iombratu genun gauŕko egunez, ¡ala merezita!, eŕi onetako seme kuŕtuna. Orenbesterekintxikitzera nua, baňa ez gauza bat oártu gabe; ta da... nerekasa ta auŕez ikasi gabe esan detala esan detan guzia.
- DANAK ¡Ori dek ori! ¡Beajundayola! (Txaloak)

- ALKA. Orain ixo, ¿e? Begira gero iñorik txintik atera, menistroa dijua izketara-ta.
- BETI. ¡Jaunak! Peru Albaika'k kontatzen du «Trakeskeriak» deritzayon liburuan...
- ALKA. Eri onetako semea bera.
- BETI. Bai, bai, ala izan bear zuan. Peru-Albaika'k, esandako liburu oretan kontatzen du ze, akefak adarrek okefak dituala, ta akefak akefakin akerena egiten duala; da esatea...
- ALKA. Trík.
- BETI. Oori da. Ez du onek esan nai, edo ez nuke esango eri onetan bai edo ez ote dan ofelako pizturiak, baño bai trikalariak badaudela nago, ta tríkariak dauden erietan ez dago alkartasunik. ¿Ta zeñ da eri bat alkartasunik gabe?...
- ALKA. ¡Inpernua!
- BETI. Orixo ber-bera. Beragatik alkartasuna piztu bear degu eri onetan.
- BATEK. ¡Gora bada alkartasuna!
- DANAK. ¡¡Goora!!
- BATEK. ¡Ta bera akeretasuna!
- DANAK. ¡¡Beeera!
- BETI. ¡Jaunak! Nik, bai nik, jaso nai nuke Artobero eri au gora, oso gora, ta eri onetako jendeari kentzeko bere begietako lausoa, ¡gora! ¡jeiki danak!...
- ALKA. I, meñoa, juan ta emayok eriari ikustalditxo bat, ta iñor oyan topatzen badek jeiki dedila, menistroak esan dualata. (Meñoa irrtetzen da)
- BETI. Ta oñtik ta emendik, ¿zeñ dala zaute burni bide bat? Itz onen agiri edo garbitasuna bilatzeko ez dago iturira juan bearik; burni-bide bat da eri bateko gora bera guzia...
- ALKA. ¡Ederki mintzatu oidira gero Gobierno'ko gizonak!
- BETI. Bada burni-bidea orixen da: burnizko bidea.
- BATEK. ¡Araya! Ori dek ateraldia.
- ALKA. ¡Ixo, moñalu aundia! ¡Ik bezin ondo ez dik jakingo menistroak!
- BETI. Nik esan nai nukeana da, alperkeria alde batera utzi bear dezutela, ta... maite zazutela zuen alkatea... (Kupitzen da

alkatea ta legortzen ditu bere begietako malkoak) baño bañutik, bera da zuen bigaren edo irugañen aitalekuko-ta. Ta nere kontu; zuen danon partetik emango dizkiot gorantziak eŕegeri; ta onenbesterekin ¡jaunak! ondo esan badet, gaizki esan badet, esanak esan, ta... baŕkatu.

- ALKA. ¡Gora su ilustrisima!
- DANAK (Zoratuta bezela) ¡¡Gooora!!
- BETI- Eskeiak, mila eskei guziori.
- EŔE. Gora gu... gu... gu...
- SEK. Gurugú.
- BATEK -¡Viva la Constitución!
- Beste batek ¡Ku... ku-ŕu-ku! (Sortzen da emen danen artean iskanbila aundi bat)
- ALKA. ¡Au dek jende lotsagabea! ¡Beste oŕenbeste! ¿Ori al da edukazioa? Neroni ere kitren xamaŕa naizela baňa, zuek... kitren ta erdi. Ta orain (Beti-gose'ri) juango ote gera edo... buŕni-bide ori bayatu edo...
- BETI- Ez, ez, batayoa gero; auŕena marþopilak, bestela nere tripa-zoŕi onek... begira gero «moŕtis» ez ote diran ekaŕiko.
- ALKA. Ondo da, bedoŕen esanera gaude ta... orain justiziko ez beste danak alpeŕ-alpeŕik zaudete, ta bazoazteke bakoitza bere etxera, ta ixilik gero... bestela... Ta guk tripari bere zoŕa oŕdaindu bitarcean, zuek «banda munizipalekoak» egin gogoŕ putz adaŕari, ¡ze demontre!
- MENOA Alkate jauna: telegráma bat oŕa emen.
- ALKA. Ea ikusi. (Irikita ematen dio sekretarioari)
- BETI- ¡¡Au dek au! Oraingoan naŕutuko netxotek).
- ALKA. Irakuri zazu, baño ondo ¿e?
- SEK. (Irakurten du) «Aŕtoberoko alkate jauna. Ezin bada joan buŕni-bide ori batayatzera lan asko daukat-eta. Beste egunen batean izan beaŕko du noski. Kapa-Rotas ministro de Fomento». (Danak jarritzen dira Beti-gose'ri begira)
- BETI- ¡¡Luŕa, irentzi nazazu! ¡Ene! ¡Aitzgori, Aralaŕ, Ernio ta beste Euskaleŕiko mendiak, betozte danok nere gaiñ).
- ALKA. ¡Malapartatua! Ori dek ori, letani aldia.
- BETI- Oŕek esan nai du...

## XIV

### LENGOAK, DIO TA KIRIKO

- DIO (Iñtenaz) Tximista arayea (Begi-gose'ri goibatistik tiraka) ḡorain ere emen aiz? ḡEz ote da iñun gorosti-makila bat, alpfoja oni bizkařak berotzeko?
- ALKA. ḡAlpfoja beaz? Bai, bai, oraintxe esan bear diguzu, aiskidea, ze mařkatako ganadua zaitugun zu, menestroa ala...
- KIRIKO (Parez) ¡Ja... ja... jai! ḡMinistroa au? ḡNundik nora gero? Astalamasko baiberoa bai au. Begira, asta-napaferia dala ta ez dala, banago munduaren eŕdia ez ote duan birali, kaiku kaiku audi onek, iltokira.
- ALKA. ḡBai ote? ¡Au dek ganadua! (Akulua goratuaz) ¡Ea, aiskidea! Zure oŕdua bete da. Esan zazu egia, bestela... datoŕela eretore jauna zure kontuak gaŕbitzera. (Akuuakin jo-tzera keňatuaz) Bat... bi... iru...
- BETI- ¡Ene! Bai ba... esango det bada. Ni naiz...
- ALKA. Mantxotu bai mantxotu. Zeŕ gerŕa ere, itxi ate ta leyoak. Tira, esan. (Txamafetik Beti-gose astinduaz) Ni naiz... ḡZein zera?
- BETI- Ni naiz... ni naiz Ajolagabe, jauna, ta bi gaitz ditut: gose asko ta... lotsa gutxi.
- ALKA. ¡Gizajua!
- BETI- Ta neri, Trípon jauna deitu ala menistro deitu, ajola gutxi, trípa bete ezker...
- ALKA. ¡Kotadua! (Kupituaz) ¡Au dek lanbidea! ḡTa orain zer?
- DIO ḡOrain zer? Goserik dagoanari jaten ematea.
- ALKA. Ařazoi dezu. ¡Ea mutilak! Egun guztiak ez dituk beŕdiňak, ta ¡ze arayel!, bazkari bat gora bera, ez dik eŕiak lur-joko. Ostalaria: *œufs* dalako ori pronto egongo da, ḡala?
- OSTA. Bai ba, tŕenpe-tŕenpean dago.
- ALKA. Tira ba: *œufs* ori eman zaiozu oni (Beti-gose'ri) ta neri txala buŕuntzian prejitura. Ta nere Ártobero'ko eŕi maitea:

auzi au bukatu da, ta zuek bazoazteke alduanak alduan  
tokira ta... gu bazkaltzera.

**BETI-** Eskeřik asko, alkate jauna, eskeřik asko. (Ikusleari begira  
ta geri-makurka)

Janariak neri on egin bear̄ badit  
jauna, gauza batek palta egiten dit.  
Jo zazutela txalo ta txalo  
zuen eskuak uratzeraino.

## Z A P I A





# EUSKALERRIAREN ALDE

La Revista EUSKALERRIAREN ALDE se titula «Revista de cultura vasca» y esa frase compendia la idea que perseguimos y las esperanzas que abrigamos. Se ocupa exclusivamente de asuntos relacionados con el País Vasco; dentro de este campo abarca cuanto no se halle contaminado con la política palpitante.

El esclarecimiento de la historia del País Vasco es uno de nuestros anhelos principales, y a llevar luz sobre tiempos pasados tienden con preferencia nuestros esfuerzos.

Pero no por eso vivimos momificados con la vista vuelta atrás. Tanto como atrás miramos adelante, y si con ahínco muchas veces dirigimos la vista al ayer, otras tantas la replegamos al hoy y la espaciamos al mañana. Queremos recuerdos, sí, pero también realidades y esperanzas.

Nos compete cuanto se relaciona con la vida de nuestro país: historia, heráldica, arqueología, viajes de extranjeros por Euskalherria, sus opiniones acerca de nuestras cosas, notas literarias, novela, poesía, música, crítica, biografía, bibliografía, arquitectura, pintura, arte dramático.... Y, naturalmente, dedicamos atención especial a la lengua vasca, flor que marchita nos entregaron nuestros antepasados y que procuraremos entregar vivificada a nuestros sucesores.

Cuanto con el País Vasco tenga algo que ver nos interesa grandemente. Fuera de esta esfera de acción, nada nos atrae; dentro de ella nos apartamos respetuosamente tan sólo de los problemas en que las pasiones ciegan y de los asuntos que no es posible rozar sin que salte la chispa odiosa de la discordia.

**Euskalerriaren alde**

ADMINISTRACIÓN  
Calle de Fuenterrabía, 14, bajo  
SAN SEBASTIÁN

El subscriptor de EUSKALERRIAREN ALDE recibe puntualmente en su domicilio todas las secciones de que se compone la Revista; recibirá asimismo los numeros extraordinarios (1), suplementos, obras encuadrables, y toda publicación que la Revista costee con destino a sus subscriptores. A fin de cada año recibirá también, para cada tomo, detalladísimos índices, redactados por orden de autores y por clasificación de materias.

La suscripción anual en estas favorabilísimas condiciones importa 20 pesetas anuales, que la Administración las cobra por giro de una letra, si el interesado no las ha enviado antes en cualquier otra forma.

(1) EUSKALERRIAREN ALDE ha publicado ya cerca de una docena de números extraordinarios, de los cuales varios tienen más de 190 páginas hermosamente ilustradas. Los últimos son los dedicados al Congreso de Pamplona, y merced a esta Revista, sus subscriptores disponen de una síntesis exacta de todas las conferencias y cursillos, de la reproducción literal de todas las conclusiones, y de una amplia relación de cuanta en Pamplona sucedió con motivo del Congreso.

# IZARA

Antzerki salá — Colección de comedias

## AGERTUAK

1.* : <i>Jauregi-erotako astoa</i> . Alfonso M. Zabala'sk asmatutako bakaflizketa. (N.º 1. Monólogo original de A. M. de Zabala).....	0,50
2.* : <i>Uruti-iketa</i> , A. M. Zabala'sk idatzitako antzezkin. Atal batekoa, ta gizonezkoak bakarik egiteko. (N.º 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala).....	1,00
3.* : <i>Melitona'ren bi senarak</i> . A. M. Zabala'sk idatzitako antzezkin. Atal batekoa ta gizonezkoentzat. (N.º 3. Comedia en un acto, para hombres solos, A. M. de Zabala).....	1,00
4.* : <i>Mendibe'taren lariyak</i> A. Lafaitz'en antzezkin. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz).....	1,00
5.* : <i>Utxi bearko!</i> Deñoka'tar Goserio'sk euskeratutako antzezkin. Gizonezkoentzat. Atal batean. (N.º 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Deñoka) .....	1,00
6.* : <i>Neskame beria</i> . Emakumezkoentzat bakarik, atal bateko antzezkin. Deñoka'tar Goserio'sk euskeratua. (N.º 6. La criada nueva. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka) .....	1,00
7.* : <i>Gizon bikañak</i> . Gizonezkoentzat, atal batean. Deñoka'tar Goserio'sk euskeratua. (N.º 7. Comedia para hombres, en un acto) ..	1,00
8.* : <i>Tripa-Zoria</i> . Gizonezkoentzat, atal batean. Toribio Larea'sk erautako antzezkin. (N.º 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Larea).....	1,50

## LAISTER AGERTZEKO

- 9.\* : *Moroi jatora*. A. Lafaitz'en antzezkin. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Lafaitz).

---

**Antzerki oek guziak, Donostia'n, Leizaola'ren idaztitegian  
(Garibay, 28) daude salgai.**